


Lezoko zine agenda

MAIATZA

MAYO

2005



Gezala


AUDITORIUMA

800
zine ma

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Igandea **1,00 €**


OSTEGUNA • jueves



EL PIANISTA

Polanskiren azken lanak Wladyslaw Szpilman poloniar pianista ezagunaren istorioa kontatzen du. Naziak Polonian sartzen dira eta Varsoviako ghettoa sortzen dute. Szpilmanek hara joan beharko du judutarra denez. Betiko naziak, judutarrak, ghettoak... baina guztia musikari baten ikuspuntutik. Polanski berriro ere zinemaren historiako zuzendari garrantzitsuenetarikoa dela berretsi zuten 2003an irabazi zituen 3 Oscarrek eta Cannesen, Europan, Goyetan eta Cesarretan jasotako sari guztiek.


2002, EB, Frantzia, Alemania, Polonia, Holanda. 150 min. Polanski, Roman
Adrien Brody, Thomas Kretschmann, F. Fnlay, E. Fox...



SILENCIO ROTO

Gure artean hain ezagun egin diren 'Tasio' edo 'Secretos del corazón' maitagarri haien zuzendari da Montxo Armendariz eta oraingoan-erregistro serioagoetan oinarrituz istorio ikargarria taxutu du. Espainiako gerra zibilaren ondorengo urteetan makiek izandako gora-beheren berri ematen du pelikulak oso modu gordinean. Hori bai, nahiz eta errealtatea izan istorioaren oinarri, zineak eskatzen duen fikziozko maitasun harreman batekin hornitua dago.


2001, Espainia. 110 min. Monto Armendariz
Lucia Jiménez, Juan Diego Botto, Mercedes Sampietro, Álvaro de Luna.



SPIDER

Cronenbergren filmografia bi talde sortzen dituen horietakoa da. Bere oso aldeko zaletuak aurki daitezken bezala, aurkakoak ere ugariak dira. Bi talde horien iritziak elkartzen ez baditu ere, nahiko hurbiltzen dituen pelikula da gaurko hau. Osasun mentalean oinarritutako istorio gehienek sortzen duten giro ilun eta itogarria sortzen du Ralph Fiennes oso bikain batek egindako lanak. Pelikularen amaierak eskaintzen dituen interpretazio ezberdinak erakargarriago egiten du pelikula ikustea.

2002, Kanada. 98 min. David Cronenberg
Ralph Fiennes, Miranda Richardson, Gabriel Byrne, Lynn Redgrave.




EL ÚLTIMO HARÉN

Nadir emakumeen harena zaintzen lan egiten duen eunukoa da. Safiye haren horretara ekartzen duten azken emakumea da. Nadirrekin paktu bat egiten du Sultanaren gustukoena izan dadin eta ondoren helburu politiko propioak lortzeko. Ez dira gauzak beti nahi bezala gertatzen ordea. Inork espero ez zuen amodio harremana sortuko da. Jatorriz turkiarra den Ozpetek, Italian bizi da eta pelikula asko egin ez baditu ere, eskaini diguna oso interesgarria da. Horren adierazgarri izan genuen Lezon joan den urtean "Hamam, el baño turco" ren proiektzioan.

1999, Italia. 110 min. Ferzan Ozpetek
Marie Gillian, Alex Descas, Lucia Bosé, Valeria Golino, Malick Bowens.


LARUNBATA • sábado



TOMA EL DINERO Y CORRE

Woody Allenek egindako pelikula bada, umorea faltan ez dela izango badakigu. Pelikula hau Allenek zuzendari bezala egindako lehen pelikula da, eta ikuspuntu horretatik interes berezia duen proiektzioa da egile honen filmografia jarraitzen duenarentzako. Bere pelikula gehienetan bezala, hemen ere protagonista nagusia Woody Allen bera da. Sketchetan oinarritutako istorio ero bezain dibertigarria honetan lapurretan hasten den pertsona baten istorioa kontatzen da. Jarduera horretarako talentu gehiegirik ez izateak endredo bat baino gehiago sortaraziko dizkio.

1969, EEBB. 85 min. Woody Allen
Woody Allen, Janet Margolin, Marcel Hillaire, Jacqueline Hyde, Jan Merlin, Lonny Chapman.



LA DILIGENCIA

"Jon Baine" protagonista duen "bakeroen" betiko pelikula. Bakeroen pelikula gehienak klasiko badira, "La diligencia" hau, klasikoen artean "klasikoenetarikoa" da, Duela urte batzuk Donostiako Zinemaldian erakusketa eta proiektzio bereziak egin zituzten pelikula hau ardatz zutelarik. John Fordek guztira 145 pelikula zuzendu zituen bere bizitzan eta horien artean daude "The Quiet Man", "Fort Apache", edo "La diligencia" bera bezalako harri bitxiak. 1940. urtean Oscarretan bi sari irabazi zituen filme honekin.

1939, EEBB. 99 min. John Ford
John Wayne, Claire Trevor, Thomas Mitchell, Andy Devine.



DUELO SILENCIOSO


Akira Kurosawak pelikula honetan berriro ere gizakien arteko harremanetan sakontzen du. Armadako zirujau gazte batek sifilia hartzen du gaixo bat sendatuz. Guk sinetsi diezaiokegu, baina bere emaztea hortaz konbentzitzen nahikoa lan izango du. Gerra amaituta gaixotasuna emaztea eta beraren arteko eztabaidagaia izango da. Eztabaidak familia edo medikuntza arteko aukeraketa egitera bultzatuko du. Hutsik behin ere egiten ez digun Kurosawaren beste maisulan bat.

1949, Japonia. 95 min. Akira Kurosawa
Toshiro Mifune, Takashi Shimura, Miki Sanjo, Noriko Sengoku, Kenjiro Uemura, Chieka Nakakita.



BAILAR EN LA OSCURIDAD


Musikan oinarritutako pelikulek ohizko arazo izaten dute tartekatzen diren abestien eta istorioaren artean sortzen diren etendurak. Hollywoodeko pelikula klasikoetan ia beti gertatzen da. Von Trierren pelikula honek arazo hori nola gainditu erakutsiko digu. Horretaz gain, kontatzen denak funtsa badu kasu honetan bezala (EEBBetako gizarteari ongi argumentatutako kritika zorrotza), pelikula borobil eta senda baten aurrean aurkitzen garena esan daiteke. Björk abeslari islandiar berezia da pelikularen antzezle nagusia eta bertan entzun daiteken musikaren interpretea. Cannesen 2000. urtean urrezko palmondoa irabazi zuen. 2000, Danimarka. 140 min. Lars von Trier
Björk, Catherine Deneuve, David Morse, Peter Stormare, Jean-Marc Barr, Joel Grey, Udo Kier.



BOSTAK 5

“Bostak itsasertzean” eta “Bostak misterio bat konpontzen”. Lehenengoan bostak oporretan daudela garatzen da abentura. Antzerki ibiltari bateko kideak ezagutzen dituzte eta handik aurrera gora-behera misteriotsu eta arriskutsuak biziko dituzte. Bigarren goa abentura uharte misteriotsu bat esploratzea erabakitzen duten unetik aurrera hasiko zaizkie buruhausteak. Beraz, gure lagunak beti bezala abenturaz abentura.

1998, EB 68 min. Tim Dowd.
Jemima, Rooper, Marco Williamson, Paul Child, Laura Petela.



HARAN SORGINDUAREN BILA

“Hankatxo” amarengandik aldendu duten brontosaua da. Triste eta bizitzari nola aurre egin behar horretan, badaki badela nonbait “haran handia” izeneko leku bat. Bertan janaria eta edaria nahi adina aurki daiteke. Leku aproposa beraz brontosauro heldua izan bitartean bizitzeko. Kontua bertara iritsi behar dela da. Bidean lagunak elkartzeko zaizkio, baina baita etsaiak azaldu ere. Kolorez eta abenturaz beteriko filme hunkigarria!


1988, EEBB 70 min. Don Bluth.
Marrazki bizidunak.



TRIKI, TRAKA, TRON

Txirri, Mirri eta Txiribiton izango dira ziurrenik euskal pailazo zaharrenetakoak eta ezagunenetakoak. Belaunaldi ezberdinak beren emaldi umoretsuekin denbora atseginak pasatukoak dira. Gaurko proiektioan, beren abesti eta istorio barregarriez tartekatutako emanaldiaz gozatzeko aukera izango duzu Gezalara hurbilduz gero.

2003, EH 60 min. Txirri, Mirri eta Txiribiton.



HIRUKIAK: BREMENO MUSIKARIAK / PRINTZESA ETA ILARRA

Hiru ahizpek oraingoan ere ipuin klasikoetan oinarritutako istorioekin datozkigu berriro. Oraingoan Bremeno musikariekin elkartuko dira. Gure lagun diren hirukiek musikaz bustiko dute lehen kontakizuna. Bigarrenean berriz, izenburua hain ezaguna ez bada ere, betiko ipuinen ildoari eusten dio: printze eta ilarraren arteko harreman gatazkatsuak amaiera zoriontsua izango du.

2004, Catalunya 60 min. Hainbat.
Marrazki bizidunak.

Gezala
AUDITORIUMA

MAIATZA - mayo

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 5	22:00	EL PIANISTA
<i>Oharra:</i> Pelikula hau joan den apirilako zegoen programatua. Egun hartan argindarrean izandako arazoengatik proiektzioa bertan behera geratu zen. Bertara, hurbildu zen jendearen interesari erantzun asmoz, pelikula berriro eskaintzea erabaki dugu.		
LARUNBATA 7	22:00	TOMA EL DINERO Y CORRE
IGANDEA 8	16:30	BOSTAK 5
OSTEGUNA 12	22:00	SILENCIO ROTO
LARUNBATA 14	22:00	LA DILIGENCIA
IGANDEA 15	16:30	HARAN SORGINDUAREN BILA
OSTEGUNA 19	22:00	SPIDER
LARUNBATA 21	22:00	DUELO SILENCIOSO
IGANDEA 22	16:30	TRIKI, TRAKA, TRON
OSTEGUNA 26	22:00	EL ÚLTIMO HARÉN
LARUNBATA 28	22:00	BAILAR EN LA OSCURIDAD
IGANDEA 29	16:30	HIRUKIAK: BREMENO MUSIKARIAK / PRINTZESA ETA ILARRA

Musipoema Juan Ramon Makuso maiatzak 6 ostirala 21:00etan GEZALA AUDITORIUMEAN

"Bizitzeak hil egiten du" da emanaldi honen izena. Emanaldia **Juan Ramon Makuso** Errenteriarrek joan den urtean argitaratu zuen izen bereko olerki liburuarekin loturik dago. liburu aurkeztuko zaigu. Hori bai, era oso berezian. Hau da, Iñaki Alberro txeloan eta Eihar Uribe gitarran lagun dituela. Poesia dastatzeko modu berri bat non musikak eta irudiak eskaintzen dituzten ahalmenak erabiliko dira hitzak eta hotsak biltzeko; finean, poesiaren soineko apaina eraikitzekeo espermentazioa interesantea.

"Poesia sakon eta biluzia, erotikoa eta gehiegikeriarik gabekoa. Bizitzako bidegurutzeen aukeraketan lagunduko diguna. Geure erromesaldia den bizitza honetan bidea egiteko aproposa. Honetan dakusagu **Juan Ramonón Makusoren** ahalegina, bidea kontzientzia eta berau ezagutuz aurrera egiteko jarrera" dio Pello Otxotekok Makusoren olerkia liburuari buruz. Aukera aproposa oso ohikoa ez den bidea jorratzen hasteko, literatur ekarpen musikatu hau zuzenean entzuteko eta egi-learekin hitz egiteko.

EMANALDIA

Juan Ramon Makuso

▼ Kontzertua

Pirineos Jazz Orchertra

maiatzak 20 ostirala 21:00etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

Zortzi musikarik osatzen duten orkestra honek kontzertu didaktikoa eskaintzen du. Emanaldiaren izena esanguratsua: "**Tam-Tametik-Tom-Tomera**". Emanaldiaren zehar, aktore/musikariitsu baten bitartez Jazzaren bilakaera deskribatzen zaigu: esklaboak XVII. mendean Amerikara iritsi zirenetik gaur egunera arte, tartean esklabotza mendeak azaltzen direlarik (XVIII eta XIX. mendeak, alegia). Aktore hau, free Jazzaren musikari iparramerikarra da eta 12 eszenetan kontatzen ditu musikaren gora-behera guztiak. Afrika, Europa eta Amerikako zibilizazio eta kulturen uztarketa du hizpide.

Kontzertuak unitate bakarrean uztartzen ditu hainbat elementu: historia, antropologia, geografia, kulturen eta arrazen arteko topalekua. Izan ere, ikus-entzunezkoa ere uztartzen du eta irudi horietan Europako, Afrikako eta Amerikako testuinguru geografiko, historiko eta sozialaren alderdi garrantzitsuenak islatuko dira. Hartara, urratsez urrats musika genero horren historia biziartzeko digute berriz ere.

▶ kontzertua eta dantza

Franck Mathieu & Jacky Cailan
Jazz hirukotea eta Claqué emanaldia**maiatzak 27 ostirala 21:00etan****GEZALA AUDITORIUMEAN**

Joan den urtean Lesoinun egin genuen claquet-arekin hastapeneko saioa. Orduko emanaldia, egun hartako musika taldea eta Tomas Garbizu Musika Eskolari zor diogu. Zorioneko inprobisazioa.

Ordukoan kasik zorabiatzeraino eraman zuen Jacky Calian claquet irakasle frantziarrak ikusleak. Sinesgaitza egin zen hango oinen dantzarako abildadea eta erakustaldia. Zalantza izpirik gabe egun hartan bertaratu ginen guztiok zorte handia izan genuen. Jacky, 1997tik irakaslea dugu Limoges-en eta honakoan, inprobisazioak lekua hartuko badu ere, ez da ardatza izango. Frantzian sona handia duen taldea *Franck Matieu jazz hirukotea* izango du bidelagun. Orain, orduan bezala, Euskal Herrian eman behar duen claquet ikastaroa izango du Lezora hurbiltzeko aitzakia. Claqueta telebistatik ezagutzen baduzu ez galdu zuzenean zer den jakiteko aukera. Antzik ez du. Dantzan, zuzeneko beste historia da eta ez zara damutuko.



Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K

